

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Krutz Sarasola Mitxelena

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Gabierrota auzoko Larre-Enea etxean jaio zen Jose Krutz. Ama Oiartzungoa zuen, baina baserria Errenteriatik kilometro batera gelditzen zen; aita, berriz, Beasainen jaioa zen, baina 10 urterekin Arrieta Ebanisteriara etorria, mantenu truke lanbidea ikastera. Mojekin ibili zen eskolan, "Gurutzeko Alabekin", 7 urtera arte. Ondoren, Aierbe ahizpekin eskola partikularrak hartzen aritu zen 3 urtez. Eta gogoan du gero fraideekin pasa zituen urteetan asko ikasi zuela. Hamalau urterekin Elizalde burdindegian laguntzen hasi zen arratsaldetan. Handik urte batzuetara arduradun izendatu zuten. Bertan aritu zen hamabi urtez. 1956an bere burdindegia ireki zuen, Sarasola izenekoa, Errenteriako Foruen Plazan. 1957an ezkondu zen Miren Lete errenteriarrarekin, eta biak aritu ziren dendan lanean. 1980ko krisia zela-eta, handik bi urtera saldu egin behar izan zuen ferreteria eta jubilatu egin zen. Bi alaba ditu.

Zintak

ERR-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-03-10
- **Iraupena:** 110 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Gabierrota lehen

- **Erref:** ERR-008/002

- **Iraupena:** 0:05:37. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gabierrotan jaio zen 4. zenbakian. Gabierrota garai hartan nolakoa zen deskribatzen du: inguruko etxeetan nor bizi zen, etxe beheko "la bodega fresca", Gabierrotako errota, aroztegia, angula-enpresa, mojen eskola...

2. Hainbat lekutan ikasten ibilia

- **Erref:** ERR-008/003
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gurutzeko Alaben eskolan ikasi zuen han Jose Krutzek 7 urte izan zituen arte. Geroago, Aierbetarren eskolan ikasi zuen. 10 urterekin Bihotz Santuen fraideekin hasi zen ikasten. Aierbetarren eskola eta fraideen eskola non zeuden azaltzen du. Fraideak irakasle onak ziren eta asko ikasi zuen han.

3. Zumardi Handia

- **Erref:** ERR-008/004
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zumardi handia ezagutu zuen Jose Krutzek eta inguru hura nolakoa zen azaltzen du: zubiak, lurrindegia, bidea, kiosko zaharra...

4. Ibaia garbitzen zutenekoa

- **Erref:** ERR-008/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:20:21. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errekan ikasi zuten igeri egiten. Han bat ito egin zen eta beste bat ozta-ozta salbatu zuten. Lehen Madalen egunerako Fanderiako errotakoek erreka garbitzen zuten. Kontratistek idiekin erreka garbitzen zutenean, legarra atera eta harekin hormigoia egiten zuten.

5. Etxebizitzaren kultura aldatu egin da

- **Erref:** ERR-008/009
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehen errentan bizi ziren gehienak, eta Francoren garaian etxebizitzaren kultura aldatu zen.

6. Aita ebanista bizi guztian

- **Erref:** ERR-008/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:23:43. **Bukatu:** 00:25:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Politika » Gerra aurea » 1914-1923: Monarkia
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Aita ebanista izan zen bizi guztian 10 urte zituenetik. Arrieta ebanisterian egin zuen lan: tailerraren kokapenaren historia kontatzen du.

7. Gerra hasierako gertaerak oroimenean ondo sartuta

- **Erref:** ERR-008/014
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:28:27. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Gerra hasi zenean, 7 urte zituen Jose Krutzek. Gogoan du lehenengo eguna: tiroak ziren eta nola-hala babestu ziren; soldadu batzuk etxera sartu ziren eta 14 urtetik gorako pertsonak eraman zituzten beraiekin; milizianoek 3 erreketek hil zituzten trenetik; erreketek Oiartzuna eraman zituzten gizonak, horien artean aita, baina zorionez denak bizirik bueltatu ziren.</p>

Transkripzioa

- Hogeita lauan jaio ziñan zu.
- Beetziyan.
- Hogeita beatziyan. Hogeita hamaseian hasi zan gerra. Zazpi urte zenitun.
- Zazpi urte.
- Nola gogoratzen dezu hasiera hura?
- Bueno, ba, gu bizi giñen, esan dizuten bezela, Larre-Enea etxe txiki hortan. Eta gogoratzen naiz, ba, goizian oso goiz etorri zen handik, eta — nere amak Aurea zun izena eta— “Aurea, etxian al zeazte denak?” eta “Bai”, “Etorri denak honea, zuek hemen bakar-bakarrik”. Bakarrik geldittu giñen itxe hartan, gure familiya bakarrik. “Etorri Diputaziyoa, beti babes hobe izango dugu ta”. Eta hara jun giñan. Gu hiru senide giñan jaiyuak ya, eta laugarrena, ama zai zeon laugarrenakin. Eta denak hara pasa giñan. Aita ere bai. Eta ya, ba... zerbaitte jana-ta bazen, ta goiza ba. Tiroka-ta hasi zien, tiruak sumatzen zien, eta han zien gizonak, ba, in zuten lehiuak eta hola koltxoiakin-ta estali balen bat sartzen bazen, ba, ille tartean gelditzeko. Eta halako batian —goiz erdiya zen; ze izango zien, ba? hamarrak o hamaikak o hola izango zien, eta—“pom! pom!” atia, “¡Abran! —iñez—¡Abran!”. Ta barrendik gizonak “Bai, bai, espera un momento que estamos quitando los colchones que... para que las balas no entren hemos puesto”, “Pues, ¡Pronto! ¡Pronto!”. Halako batian kendu zuten koltxoia ta

“paa!” atia bota zuten. Bueno, iriki zuten golpe batekin. Eta “¡Manos arriba todos!”. Haurrak aurrian, primera filan, eta atzian emakumiak eta gizonak eta. “Los mayores de catorce años que salgan”, atera zittuzten. Bazien. Bi- o bazien, bat hamasei urtekua, bestia hemezortzikua. Hemezortzi urtekua bizi da ondik. Ezkondu zen eta hemen Erreterian fabrika batian, hemen, hemen zeon fabrika, “[...]” egondu zen kontable. Eta gero alargundu in zen eta jesuita jun zan. Ta oan zeon dago, Bilbon. Biñon ya baditu harek larogeita... —ni baiñon hamar urte zaharrao izango zen—ba, larogeita hamar. Ta bizi da oaindik.

- Bizi da oaindik?

- Bai, zeatik nere aita hil zanian, nunbaitte eskela ikusi zun, ta nee amai bialdu ziyon pesamea ta. Bai. Ramon Agirre. Bai.

- Eta esan dezu, orduan, atera in [ziatela].

- Bai. Eta orduan eman zittuzten... Gero han pasa zen reketiak zien eta ez zien Erreterian sartu. Gabierrotaiño bakarra geldittu zien. Ta, orduan, sartu zen tren bat miliziano —orduan milizianuak deitzen zien republikanuak—... sartu zien trenian eta tiroz hiru erreketek hil zittuzten. Eta bestiak sutu zien eta konturatu zienian trenetik zela, [...] trenan atzetik “pin-pan!” tiroka, ta orduan trena berriz atzeraka jo ta...

- Harrapatu zituzten.

- Ez, ez, ez zittuzten harrapatu!

- A! Ez zittuzten harrapatu?

- Ez, ez ke ba! Ez zien ausartu trenan atzetik gehio jutia haik harrapatzeati, zeatik blindatua zeon ta.

- Ya, ya, ya.

- Eta gero, egun hartan, reketiak erretiratu in zien Oiartzuna. Ta gure aitta eraman in zuten. Gure aita ta beste gizon asko! Ta emakume gehienak senarrik gabe geldittu zien. Eta, zorionez, bat o beste gerran hil zien haitakoak, baiñon denak bueltan etorri zien. Gero hemen sartu zianian, ya iraillian 13an sartu zianian, berak´e atzetik libre etorri zien, baiñon preso han egondu zien Oiartzunen.

- Zenbat denboraz?

- Ba, bi hillabete. Bi hillabete exkaxak. Bi hillabete.

- Esan dezu iraillak 13.

- Bai.

8. Gerran Erreteria hustu egin zen, baina beraiek han geratu ziren

- **Erref:** ERR-008/015
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:35:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra hasi zenean, amaren baserrira joan ziren beraiek Lartzabala; geroago, Villa Dominicara; eta azkenik, batzuek Frantziara alde egin bazuten ere, beraiek Erreterian gelditu ziren. Orduan nazionalak hartu zuten Erreteria garaitzaileen jarrera zutela. Erreteria oso aldatuta egon zen garai hartan, hustuta. Herriar batzuk falangista bihurtu ziren.

9. Gurasoek ez zuten elkarteetan sartu nahi izaten

- **Erref:** ERR-008/016

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:35:01. **Bukatu:** 00:36:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra aurretik, batzokian bazegoen kultur giroa. Baina Jose Krutzen gurasoak ez ziren elkarteetan sartzeko zale. Amaren urteak uztailaren 18an ziren, baina berak 19an ospatzen zituen.

10. Osabaren oroimena oso bizirik

- **Erref:** ERR-008/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:36:19. **Bukatu:** 00:38:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra garaian, osaba fusilatu egin zuten. Gerra ostean, haren oroimena oso bizirik eduki zuten. Osaba futbolaria zen; lehen Erreterian hiru futbol-talde zeuden eta haien arteko aldeak aipatzen ditu.

11. Etxeberrietako auzoaren sorrera

- **Erref:** ERR-008/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerra bukatutakoan, jende asko etorri zen Erreteriarara. Etxeberrietako auzoa zergatik sortu zen azaltzen du: paper-fabrikan greba egon zenez, kontratistak kanpotik ekarri zituen langileak eta haienezako etxeak eraiki behar izan zituzten.

12. Eskola utzi eta egun bertan lanean hasi

- **Erref:** ERR-008/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:34. **Bukatu:** 00:43:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

14 urte zituela, eskola utzi zuen eta egun hartan bertan hasi zen lanean Elizalde burdindegian. Burdindegi hura nolakoa zen azaltzen du. Han enkarguak banatzen aritzen zen bizikletaz. Lehen oso auto gutxi ibiltzen zen errepidean eta jolasak asmatzen zituzten autoen inguruan.

13. Elizalde burdindegian lanean

- **Erref:** ERR-008/023
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Elizalde burdindegian zer lan izaten zituen aipatzen du. 12 urtez egon zen han. Nagusiaren laguntzailea izan zen.

14. Bezeroak lehen hobeto zaintzen ziren

- **Erref:** ERR-008/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:44:43. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

1956an burdindegia jarri zuen bere kontura Foruen plazan eta han denetik saltzen zuen. Lehenengo bezeroa nor izan zen gogoan du. Bezeroak nola zaintzen zituen azaltzen du.

15. Bezeroek inportazioko materiala eskatzean, kontrabandoa

- **Erref:** ERR-008/025
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:49:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Tailerrak bezero zituen eta haiek zerbitzatzeko nola moldatzen zen azaltzen du. Kontrabandoan ere ibiltzen zen, inportazioko tresnak eskatzen baitzizkioten bezeroek. Aduana pasatzeko trikimailuak ezagutzen zituen.

16. Espainian izandako blokeo ekonomikoaren ondorioak

- **Erref:** ERR-008/026
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:50:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gerra ostean hemen tresna txarrak zeuden, ez baitzegoen aurrerapenik ez lehengai onik ere. Altzairu onenak Suedia eta Alemaniakoak ziren. Gainera, Espainiako merkataritza blokeatuta zegoen.

17. Dendariak eta bezeroak elkarri laguntzen

- **Erref:** ERR-008/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Baserritarrak ere etortzen ziren Jose Krutzen burdindegira, batzuetan mesede eske eta hurrengoan zerbait erostera; elkarri laguntzen zioten garai hartan, harreman handia zegoen dendarien eta bezeroen artean. Gaur egun harreman hori galdu egin da. Tresna berriak nola erabili azaltzen zien Jose Krutzek bezeroei.

18. Lehengo salmenta-neurriak eta zorrak

- **Erref:** ERR-008/028
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lehen diru gutxi zegoen: behar zena bakarrik erosten zen (dozena bat txintxeta, puntapax gutxi batzuk...). Zorrak eta ezin ordainduak bazeuden garai hartan, baina jendearen artean baino gehiago, kontratisten artean.

19. Erretereriako feriaren garai onak eta geroko beherakada

- **Erref:** ERR-008/029
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:57:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Foruen plazan lehen feria izaten zen eta jende asko ibiltzen zen han. Eguneroko produktua esnea izaten zen, baina fabrikak hasi zirenean esnea saltzen, galdu egin zen egunero feria egiteko beharra eta ohitura. Baserritarrak nondik etortzen ziren aipatzen du. Erretereria Oarsoaldeko hiriburu zenez, jende asko ibiltzen zen.

20. Erretereriako industriaren bizia

- **Erref:** ERR-008/030
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:57:11. **Bukatu:** 01:00:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erretererian lantegi asko zegoen eta Oiartzundik jende asko etortzen zen bizikletaz; horri esker atera omen dira hainbeste txirrindulari Oiartzunen. Erretereriako lantegietan produktu onak egiten ziren. Esmalte-fabrikaren filosofia zen gerra aurretik bezero izan zirenei bakarrik saltzea gerra ostean. Burdindegiko hornitzaileak gehienbat inguruko lantegiak ziren, baina bazeuden Espainia mailakoak ere. Madrilen ere bazituen bezeroak.

21. Aitaginarreba abertzalea

- **Erref:** ERR-008/031
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:00:22. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Langile-mugimendurik ez zen egon 60. hamarkadara arte. Jose Krutzen aitaginarreba "Solidarios vascosekoa" zen: PNVk kapitalismoaren alde egitearen kontra bazegoen ere, gerra garaian beste alderdi abertzalerik ez zegoenez, Agirre lehendakariaren guardia pertsonaleko ertzaina izan zen. Geroago, preso hartu zuten eta "Batallón de Trabajadoresen" egon zen urtebete baino gehiago.

22. Madalenetako failak

- **Erref:** ERR-008/033
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:01:48. **Bukatu:** 01:04:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lehen Madalenak oso desberdinak ziren: herriak parte hartzen zuen eta orduko jolasak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Urte batean, "Batallón de Trabajadoresen" zeuden valentziar batzuk failak egin zituzten, beraien herriko ohitura baitzen; faila haietan zer irudi egin zituzten azaltzen du.

23. Zumardian musika ostegunetan eta igandetan

- **Erref:** ERR-008/034
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:04:29. **Bukatu:** 01:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

50. hamarkadatik aurrera, gazte asko elkartzen ziren Zumardian musika entzuteko: igandetan banda izaten zen eta ostegunetan gramola. Neskatan nola egiten zuten aipatzen du. Emaztea Zumardian ezagutu zuen Jose Krutzek eta pixkanaka joan ziren elkarrekin ateratzen.

24. Neskek nola aukeratzen zituzten mutilak

- **Erref:** ERR-008/035
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:06:54. **Bukatu:** 01:10:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Garai hartan neska ugari ezkontzen ziren haurdun. Etortzen zitzaien gizonarekin konformatzen ziren emakumeak. Gizartean izandako aldaketari buruzko iritzia ematen du.

25. 30 urte burdindegian lan egin ostean, erretiroa hartu zuen

- **Erref:** ERR-008/037
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

30 urte aritu zen burdindegian lanean. 1982ko krisia gogorra izan zen eta burdindegia saldu behar izan zuen. 60 urte zituela erretiroa hartu zuen.

26. Hirigintza antolatzeako koordinakundea

- **Erref:** ERR-008/040
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:17:23. **Bukatu:** 01:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Errenteria handitzen hasi zenean, hirigintza antolatzeako koordinakundea sortu zen: bilerak egiten ziren udaletxe aurrean, protestak... Lan eta esperantza handia zeukaten garai hartan, baina porrot egin zutela uste du, boteretsuen aurka egitea oso zaila baita.

27. Kanpotik etorritako jende-uholdea

- **Erref:** ERR-008/042
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:21:44. **Bukatu:** 01:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kanpotik Errenteriara etortzen zen jendea nola iristen zen azaltzen du. Hona iritsitakoan, familiakoen etxean gelditzen ziren hasieran; etxe batzuetan 20-30 lagun bizitzen ziren. Galiziatik jende asko etorri zen. Herritarrek harrera ona egin zieten, lagun egiten ziren. Kanpotik etorritakoen artean ezinikusiak zeuden.

28. Kanpoko jendea etorri zen garaiko kredituak

- **Erref:** ERR-008/043
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:24:02. **Bukatu:** 01:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kanpotik jendea etorri zenean, bertakoek lagundu zieten. Kredituen interesak garai hartan oso altuak ziren.

29. Errenterian erdara nagusitu; herri txikietan, ordea, euskara

- **Erref:** ERR-008/044
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:25:34. **Bukatu:** 01:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kanpotik etorritako jendeak euskaraz ikasi zuen herri txikietan; Errenterian,

ordea, euskara alde batera utzi eta erdarara jo zuen jendeak. Lehen ikastolarik ez zen gainera; fraideek euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten umeak Jose Krutz umea zenean.

30. Sagardotegietako giroa Errenterian

- **Erref:** ERR-008/046
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:29:01. **Bukatu:** 01:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errenterian sagardotegi ugari egon izan dira, baina denak batera inoiz ez. Sagardotegian kupel bat egoten zen, eta hango sagardoa bukatzen zenean, itxi egiten zen. Lehengo sagardoa naturala zen eta mindu egiten zen. Sagardotegiko giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

31. Sagardotegian lotan gelditzen zirenak ere

- **Erref:** ERR-008/047
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:32:21. **Bukatu:** 01:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Sagardotegian aste osoa pasatzen zutenak ere bazeuden garai batean. Donostiatik gizon bat etortzen zen Errenteriako sagardotegira; Jose Krutzek haren ohitura xelebreak kontatzen ditu.

32. Herriko pertsonaia xelebreak

- **Erref:** ERR-008/050
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:36:35. **Bukatu:** 01:37:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errenterian izandako pertsonaia xelebreak aipatzen ditu: Zaku, Lepo, Txarlot... Txarloten xelebrekeriak aipatzen ditu.

33. Merkataritza txikiaren beherakada

- **Erref:** ERR-008/053
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:40:48. **Bukatu:** 01:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Merkataritza txikia galtzen joan da: batetik, azalera handien eraginez, bestetik material hobeko tresnak erosten direlako orain eta denbora gehiago irauten dutelako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com